



SANTO TOMAS EGUNA

Txistorra eta taloa barra-barra Hernanin

Santo Tomas eguna da gaurkoa, eta Hernanin lehengo astean ospatzen hasi bazen ere, gaurkoan nahikoa aukera izango da txistorra eta taloa dastatzeko, herriko hainbat elkartek jarritako postuetan.

POSTU dezente jarriko dira gaur herrian, Santo Tomas egunaren bueltan.

Batetik, Herrira mugimenduak Garin tabernan jarriko du postua eta, CD Hernani kirol-taldea Plaza Berrin izango da. Gibelalde, Lizeagako auzo elkarteak ere postua jarriko du, 18:30etatik 21:00etara, Larramendi kaleko 15 zenbakian. Gazte Txokoan arratsaldetaz ospatuko dute eguna.

Goiz Eguzkin ere izango da txistorra jateko aukera. Era berean, udazkeneko txapelketetako irabazleen berri emango dute.

Ikastetxeetan ere, festa

Herriko ikastetxeek ere ospatuko dute Santo Tomas eguna. Goizean zehar, txistorra jateko aukera izango da denetan, eta azoka eta haurrek egindako eskulanekin erakusketak ere jarriko dituzte.

Tabernetan, txistorra

Azken urteetan bezala, herriko tabernekin ere bat egiten dute Santo Tomas eguneko



Lehengo urtean bezala, hainbat postu jarriko dira herrian; Plaza Berrin, CD Hernanirena.

festarekin, eta txistorra jateko aukera emango dute.

Portuan, igandean

Portu auzoan, igandean egingo dute txistorrada, eguerdiko 12:00etatik aurrera, Ibarrolaburu plazan. Ondoren, auzoko Gabonetako

saskia zozketatuko dute.

Tren zerbitzu bereziak

Hernanin ez ezik, Donostian ere ospatzen da Santo Tomas eguna. Festa haundia izango da egun osoan zehar, eta horregatik, Renfe tren zerbitzuak adierazi du indartu

egingo duela egun honetako zerbitzua. Bereziki, goizeko 09:00ak eta eguerdiko 12:00ak bitartean jarriko dira tren gehiago.

Bestalde, Gabonetako festak direla eta, tren zerbitzua murriztu egingo da abenduaren 24tik urtarrilaren 6ra. ||

DOBERA-KRONIKA: GABONETAKO SASKIAK

Banatu dira opariz betetako 5 saskiak!

Bost zenbaki dira saridunak: 3.776a, 4.152a, 2.417a, 512a, eta 1.759a. Saridunek Hernaniko Kronika edo Doberara deitu behar dute sariak jasotzeko, eta 20 eguneko epea izango dute.

BOST saski zozketatu dituzte aurtan Hernaniko Kronikak eta Dobera Euskara Elkarteak, Berriak merkataritza elkartearen laguntzarekin.

Atzo egin zen zozketa, eta bost dira zenbaki saridunak: 3.776arentzak 1go saskia

(Aralar tabernan banatua), 4.152arentzat 2garren saskia (Zinkoeneako Kioskoan banatua), 2.417arentzat 3garren saskia (Rioja tabernan banatua), 512arentzat 4garren saskia (Kronikan banatua), eta 1.759arentzat 5garren saskia

(Conde, Urbietako kaleko kioskoan banatua).

Saridunek 20 eguneko epea izango dute saskiak jasotzeko. Horretarako, Hernaniko Kronikara edo Doberara deitu behar dute (943 33 08 99) datuak emateko.

15na sari, saski bakoitzean Sari potoloek osatzen dituzte bost saskiak, eta bakoitza, 15na oparik osatzen dute, gutxienez.

Hernaniko Berriak elkarteko merkataria eta ostalariek jarri dituzte sari guztiak. ||

◆ MUX TXAPELKETAK Dorin, gaur

Gaur gaueko 22:30etatik aurrera, Mus Txapelketa jokatuko da Dori Kafetegian. Izena bertan eman behar da: bikoteko 24 euro. Hilaren 28an, beste Mus Txapelketa bat jokatuko da Dorin. ||

◆ Anboton, bihar

Gabonetako mus azkarra antolatu du Anboto tabernak biharko, 16:00etatik aurrera. Sariak izango dira lehenengo 4 bikoteentzako. Lehenbailehen izena eman behar da, Anboton bertan. ||

◆ HIRIGINTZA

9 puntu, aztergai

Hirigintza eta ingurumen baztordea izango da gaur 09:30etan udaletxeko 1go bilera gelan (4. pisua). 9 puntu izango dituzte aztergai; besteak beste, lizentzia berrien edo zaharren luzapenerako eskaerak. ||

◆ PRESO ETA IHESLARIAK Kontzentrazioa, gaur

Hernaniko preso eta iheslari politikoen senideek deituta, kontzentrazioa izango da gaur, 20:00etan Zinkoenean. ||

◆ KAXKO ELKARTEA Errifak, salgai

Kaxko elkarteak errifak jarri ditu salgai. Euro baten trukean 10 zenbaki emango dira, eta saria izango da Errioguardan otordu bat asteburuan, bi pertsonentzako. Sariduna urtarrilaren 6an jakingo da. Errifak Miguel Lujanbiok dauzka salgai. ||

◆ EREÑOTZU

Barrikotea, bihar

Ur-miak antolatuta, barrikotea izango da bihar, iluntzeko 20:30etatik aurrera, Urmia elkartearen bertan. Izena emateko zerrendak jarrita daude. ||

ghd
plantzak 159 €-tik aurrera
Gabonetan oparitu
ghd plantzak edo
lisaketa brasildarrak
Urup Legameta - Estaketa
Nafar kalea 16A, Hernani
943 579 976

JOSU ALKORTA
harategia
JABUGORIK ONENAK
BENETAKO JABUGORIK
Nafar kalea 11 Tel.: 943 551 681

ezkati
ileapaindegia
Iturri, 4
Hernani
943 66 66 56
Hartu ordua

Allianz ASEGURUAK
bizitza -
istripak -
ilguilak -
otsoak -
kometrikak -
enpreak -
ardura zibila -
finantz asegurak -
Inbertsioak
agustin ezponda irizar
agentzia
Nagusia, 13
Telf.: 943 55 73 26
Faxa: 943 33 67 71

mikel armendariz
proiektu eta instalazio
elektrikoak
Tel. 649 846 422
HERNANI

TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 092 ● DYA: 943 464622
 ● Autobusak: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
 ● Anbulatorioa: 943 006666 - 943 203020 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103
 FARMAZIAK ● Egunez: Odriozola URNIETA - Idiazabal, 18 - 943 334014 ● Gauez: Etxebeste Elkano 9 - 943 552087

EGURALDIA
GAUR Goizean lainotuta egongo da eta euria egingo du. Arratsaldean artu eta ostarteak ireki dira. Haizea zakar xamar ibiliko da. Min.10°/Max.16°
BIHAR Orokorrean giro eguzkitsua izango dugu, baina goizaldean behe-lainoa sortu daiteke. Haizea ahulago ibiliko da eta tenperatura igo egingo da. Min.10°/Max.18° (euskaime)

GAZTE ZUKGUA ASTEA

Prozesua ezagutu eta ondo pasatzeko astea, datorrena

Abenduaren 26, 27 eta 28an ekintza ugari izango dira Hernanin, Gazte Zukgua prozesu eratzaila ezagutu eta ekarpenak egiteko.

PROZESU eratzaila baten izena da Gazte Zukgua, eta gazte estrategia finkatzea du helburu.

Prozesu hau 3 bloketan banatuta dago, eta lehenengo biak bukatu dira, dagoneko. Hernanin eta beste hainbat herritan formakuntza saioak egin dira, eta azken saio honetan, gazte estrategia definitu eta erakundearen izaera zehaztuko dira, parte hartzaile guztien artean.

Hau guztia hobeto ulertzeko, elkar ezagutzeko, ondo pasatzeko eta nork bere ekarpenak egiteko, Gazte Zukgua astea antolatu da Hernanin, abenduaren 26, 27 eta 28an.

Ekarpenak egiteko eta ondo pasatzeko astea
 Abenduaren 26an hasiko da Hernanin, Gazte Zukgua astea.

Egun honetan Tximeletak eta pizzak ekitaldia antolatu dute, 19:00etan hasita, Garinen. Bertan, Tximeletak dokumentala jarriko dute, 'gazte borrokaren parte izan diren, garen eta izango diren guztien' inguruko dokumentala.

Bestalde, abenduaren 27an Gosaldu Gazte Zukgua ekitaldia antolatu dute. Goizeko 10:00etan Biterin elkartzeko deia luzatu dute, gosalduta eta gazte estrategia-aren inguruko asanblada egiteko. Era berean, arratsaldeko 19:00etan Tonbola erotikoa jarriko dute Garinen.

Azkenik, hilaren 28an, egun osoko egitaraua prestatu dute. Goizeko 10:00etan berriro ere Biterin elkartzeko deia, gosalduta eta asanblada egiteko. Ondoren, bazkaldu egingo dute, 14:30etan (txartelak salgai Garinen, 5 eurotan). Arratsaldeko 18:00etan berriz, ekitaldi berezia egingo dute Tilosetan, urtarrilaren 12an Bilbon egingo den manifestazioari atxikimendua adierazteko. Azkenik, gaueko 23:00etan fruitu koktel degustazioa eta karaokea egingo dira, Garinen.

Parte hartzeko deia
 Hernaniko Gazte Zukgua asteko antolatzaileek datoren asteko ekintzetan parte hartzeko luzatu die gazte hernaniar guztiei.

GAZTE ZUKGUA ASTEA

Abenduak 26, Tximeletak eta pizzak: 19:00etan Garinen.

Abenduak 27, Gosalduta Zukgua: 10:00etan Biterin.
Tonbola erotikoa: 19:00etan Garinen.

Abenduak 28, Gosalduta Zukgua: 10:00etan Biterin.
Bazkaria: 14:30etan. (txartelak salgai Garinen, 5 eurotan).
Koktel degustazioa eta karaokea: 23:00etan Garinen.

Ekintza hauen bidez, ondo pasa, elkar ezagutu, eta gazte erakundea sortzeko nork bere ekarpenak egin ditzala nahi dute.

Gazte Danbada, martxoan
 Hainbat herritan bultzatzen ari den prozesua da Gazte Zukgua, eta martxoa inguruan bukatuko da. Lehenago, herri guztietan egin diren proposamenak bildu eta emendakinak aurkezteko aukera izango da, gazte erakundea den artean sortzeko.

Prozesua amaitzean, martxoa inguruan, Gazte Danbada izeneko festa egingo da. ||

TIRO OLINPIKOA Aimar Matxiok, puntu errekorra

Gipuzkoako Tiro Olinpikoko Txapelketa jokatu berri du Aimar Matxio, 9 urteko hernaniarrak, eta txapelketa irabazteaz gain, Euskadiko puntu errekorra lortu du. Guztira, 600 puntu lortu zitezkeen, gehienez ere, eta hernaniar gazteak 564 egin zituen. Hori dela eta, Euskadiko Tiro Olinpikoko modalitateko puntu errekorra lortu du. Matxio Errenteriako Ostadar klubean aritzen da arku-tiroa praktikatzeko (Hernanin ez dago talderik), eta eskerrak eman nahi izan dizkie Txema eta Joakin, entrenatzaileei. ||



ESKU PELOTA-GIPUZKOAKO TXAPELKETA Pagola eta Urruzola finalerdietan, gaur

Gaur arratsaldeko 19:15etatik aurrera, Gipuzkoako Txapelketako finalerdia jokatu dute Xabat Pagola eta Iñaki Urruzola hernaniarrek Antzuolan, Zubizarreta eta Jorge bergaratarren aurka. Sailkatzeko fasean 9 partidu irabazi eta 3 galdu dituzte hernaniarrek, eta 3garren postuan iritsi dira finalerdietara. ||

IGERIKETA- HERNANIKO XVI.SARIA Hernaniko XVI. Saria bihar jokoan

Bihar goizeko 09:30etatik aurrera, Hernaniko XVI.Saria jokatu da kiroldegian. Bertan, Hernaniko igerilariak gain, beste zazpi taldek ere hartuko dute parte: Buruntzaldea, Ordizia, Tolosaldea, Bergara, Fortuna, Atletico SS eta Zarautz. Guztira, 189 igerilari ariko dira lehian. Hernaniarrek animatzera etortzeko deia luzatu diete jarraitzaileei. ||

GABONETAKO KONTZERTUAK Bi kontzertu, asteburuan

Bihar Ozenki abesbatzak eta Hernaniko Musika Bandak Gabonetako kontzertua emango dute, 19:30etan Milagrosan. Hamalau kantuz osatutako egitarau bete prestatu dute. Igandean berriz, Txistulari Bandak, akordeolariak lagunduta, zortzi pieza joko ditu, eguerdiko 13:00ean Milagrosan. ||

THE ZEPD MUSIKA TALDEA The Zepo musika talde hernaniarraren kontzertua Guardetxean, bihar

'Txistorra Rock Fest' jaialdia antolatu dute bihar Donostiako Guardetxean, gaueko 20:45etatik aurrera. Hainbat taldek joko du bertan, eta horien artean, The Zepo hernaniarrak. Beste taldeak: Blast Wave eta Red Veil. Sarrerak aurrez erosi daitezke Haida tabernan 6 eurotan, eta egunean bertan, Guardetxean, 8 eurotan. ||

HERRIRA MUGIMENDUA Igandeko emanaldirako sarrerak Garinen

Herrirak Gabonetarako antolatutako ekintzen artean, *Herrira noa* emanaldi kulturala izango da igandean, 18:30etan Billabonako Gurea Zineman. Artista ezberdinen musikak, poesiak... osatutako emanaldia izango da, eta sarrerak Garinen erosi daitezke, 6 eurotan. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskala jartzen duen eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

**ARANTXA ROMERO
TUMAS**

*Ez agurrik, ez adiorik
gero arte baizik.*

**ZURE AHIZPA M^a CARMEN ETA
LUIS M^a POLO ZURE KOINATUA**

Hernanin, 2012ko abenduaren 21ean

IRAGARKI MERKEAK

Klase partikularrik emango nituzke; matematika, ingelesa... 24 urteko neska euskaldun esperientziaduna. Deitu: 685 734 410
2 kotxerentzat garajea alokatzen dut, Garcia Goldarazen. Modu onean. Deitu: 686 246 770
Atikoa salgai Kale Nagusian. 176.000 €. Gazteentzat aproposa. 48 m2 erabilgarri.
 Bizitzera sartzeko. Deitu: 652 740 831. Posta: lursaski@gmail.com
ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.
Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)